

Datu hauen inguruan hausnartu


Estatu Batuen ondoren, Espainia da mundu mailan ikerketa militarri portzentaje altuena eskaintzen dion estatua: I+Gko gastu publikoaren %26a, hain zuzen ere.

2006ko Espainiako gastu militarra 21.028 milioi euro izanen da, aurrekontu orokorren %12a, hau da, 58 milioi egunean.


Nafarroak gastu militarren 298 milioi euro ordaintzen ditu, hau da, 536 euro urtero biztanle bakoitzeko.

2006 eta 2021 bitartean, gobernuak 18.000 milioi euro baino gehiago konprometitu ditu, "programa handietan" armak eskuratzeko.

EZ ordaindu gerra zure zergen bidez




=




3 Misil Tomahawk

=

haur eskola bat




=



3 Tanke Pizarro

=

bigarren hezkuntzako institutu bi



Eurofighter hegazkin bat


=



=

ospitale bi

EZ EZAZU GERRARIK ORDAINDU



Ezta pertsona bat, ezta euro bat ere, gerrarako



GASTU MILITARRAREN aurkako zerga eragozpena

Gastu militarren aurkako zerga eragozpena, orain dela hainbat hamarkadatik gaur arte, hemen eta toki askotan milaka lagunek

egiten duten desobedientzia zibilean oinarritutako kanpaina antimilitarista eta herrikoa da.





Honen helburua botere publikoen aurrean indar egitea da, gizateriaren aurkako krimena diren gerra eta armadak elikatze erabiltzen duten zentzurik gabeko dirutza xahutzeari utz diezaioten.

Nola egin?

Errenta aitortpena (PFGZ) egitean, gastu militarri dagokion portzentajea (%12) edo kopuru jakin bat (guk 84 euro proposatzen dugu, munduko herrialderik pobreenak beste horren beste baitira, baina zuk ikusi) DESBIDERA EZAZU ordaindu behar baduzu, edo kopuru hori bera ESKA EZAZU jaso behar izatekotan.

Diru kopuru hori, zure laguntza jasoko duen taldearen banku kontuan edo denon arteko proiektuarenean SARTU (ordainagirian "zerga eragozpena" jarritz)

Ez ahaztu!

-  Diru sarreraren ordainagiria bankuan eskatu. Kontzeptu gisa "zerga eragozpena" jarri.
-  Desbideratutako diru kopuruaren ordainagiria aitortpenari gehitu.
-  Zerga eragozpena egitearen arrazoiak azaltzen dituen eskutitza ere gehitu.
-  Zure eragozpena talde antimilitarista hurbilenari jakinarazi, urteko kalkuluetan kontuan har dezagun.

Alde praktikoak

Aitorpena eskuz egiten baduzu, zerga eragozpena azken orrialdean jarri, "bestelako kenketak" barneko epigrafeetako bat ("nazioarteko inposaketa bikoitza" edo besteren bat) ezabatu eta ondoan "zerga eragozpena" eta desbideratutako kopurua idatzi.

Bankuan egiten baduzu eta programa informatikoak zuzenketarik ez badu onartzen, bi aukera dituzu:

1. Inprimatzeko baina ez bidaltzeko eskatu, froga moduan. Etxera eraman eta eskuz beste bat egin, zerga eragozpena "bestelako kenketak" barneko epigrafeetako batean sartuz. Honela, gutxiago ordaintzeko ala gehiago jasotzeko aterako zaizu, eta alde hori desbideratutako diru kopurua izanen duzu.
2. Bankutik bertatik bidali behar baduzu, "bestelako kenketak" barneko epigrafeetako batean desbideratu nahi duzun kopurua jartzeko eskatu. Ordainagiria eta azaltzeko eskutitza gehitzeko aukerarik ez badute ematen, Ogasun Zailera instantzia bidez bidali, zure aitortpenari gehitzeko eskatuz.

Ogasun Zailetik aitortpena egina bidaltzen badizute, hori bera onartu beharrean kopia itzazu datu horiek eskuz egindako beste aitortpen batean, gehi itzazu eragozpenaren datuak eta ez ahaztu bukaerako kopurua aldatzen, ordaintzeko edota jasotzekoa izanik ere.

Informazio gehiago

Material osagarriak, informazio hitzaldiak edota informazio gehiago eskatzeko:

NAFARROA: www.noalaguerras.org

objecionfiscal@noalaguerras.org

Bakearen Etxea:

Maiatza eta ekaineko astearteak, iluntzeko 7etatik 9etara
Merced Kalea, 18 b., 31001 Iruñea. Telefonoa: 948 210530

ESTATUA: www.insumissia.org
www.grupotortuga.org

Dirua desbideratzeko proposamenak

PROIEKTU KOLEKTIBOAK

Urtero bezala, estatu espainiarrean komuneko proiektu bat aukeratu dugu:

Kolonbiako Bake Komunitateak

Bake Komunitateak pertsona indigenek edota pobreek osatzen dituzte, eta ejertzitza, gerrilla eta talde paramilitarren arteko gatazka zonaldeetan kokaturik daude.

Bake Komunitateetan bizi diren pertsonen talde armatu guztien erasoak jasaten dituzte, baina paramilitarren edota Espainiari armak erosten dizkion ejertzitzaoren aldetik presio eta krudelkeria askoz gehiagorekin.

Nafarroan, proiektu honetaz gain beste bat aukeratu dugu:

Bardeetako desmilitarizazioa , alegia.

2008. urtean berriro ere erabaki behar da ea hainbat tokietako heriotza eta gerrak (Libia, Afganistan, Irak...) prestatzeko beharrezkoa den gure lurraren zati hori ejertzitzaori uzten zaion ala ez.

Jasotako dirua bi proiektu horietara bideratuko da, %50a bakoitzari, zuk zeuk beste portzentaje bat proposatzen ez baduzu, noski.

Nafarroako Eragozpen Fiskala
Euskadiko Kutxa, 3035 0039 32 0390047056

BESTE AUKERA BATZUK

Dirua zuk erabakitzen duzun beste hamaika talde edo proiektu ezberdinetara bidaltzen ahal duzu. Adibide moduan giza eskubideen aldeko taldeak, ingurugiroaren aldeko taldeak, kultur elkarteak, auzo elkarteak edo GKEak dituzu.